

### **3. FUNTSEZKO ELKARTEAK:**

Gure enpresaren bazkideak gu geu (Iraia, Maren, Ugaitz, Nahia eta Miren) soilik izango gara momentuz, geroago agian bazkide gehiago egon daitezke beharrezkoa bada (diru edo bezero falta baldin badugu). Hala ere, bazkide berriak ez dira edozein pertsona izango, baizik eta konfiantzazko eta zenbait eskakizun (egoera ekonomiko egokia izatea, gure jasagarritasun zein bizitzako baloreak errespetatzea) betetzen dituen pertsona bat izango liteke.

Bazkide nahiko gara, beraz, inbertsioak guztion artean egingo ditugu eta bakoitzak indibidualki gutxiago ordaindu beharko du. Gainera, horretaz gain bazkideetako norbait egoera ekonomiko txarrean badago, dirurik ez badauka edo ordainketa egitea ezinezkoa egiten bazaio, beste bazkideek ordain dezakete bere zatia, ondoren zorra ordaintzeko asmotan noski.

Gure diskotekan salduko ditugun edariak Makro supermerkatuan erosiko ditugu, horrela merkeago izango dugu produktu bakoitzeko unitatea. Izan ere, Makro handizkari bat denez, produktu kopuru handi bat erosten dugunean erositako unitateko kostua murriztea lortuko genuke, hortaz kostuak murriztuko genituzke.

Kaskoen eta sakelako telefonoak kargatzeko kargagailuen kasuan, gure inguruko enpresa bati erosiko dizkiogu, horrela ez genuke esportazioan xahutuko genukeen dirua gastatuko, beraz dirua aurreztuko dugu. Horrez gain, honi esker Euskal Herriko ekonomia bultzatuko genuke.

Azkenik, bezero bakoitzak nahi dituen abestiak, nahi dituenen, nahi dituen erara eta iragarkirik gabe entzun ahal izateko, edozein gailutan deskargatu daitekeen app bat sortuko dugu. Hau informatikaz dakien lagun batekin batera egingo dugu, aditu hau ezaguna eta laguna izanik konfiantza eta segurtasuna transmititzen du.